

azpeitikoudala
denon artean

UEMA
UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

# Amueko Plan Bereziaren hizkuntza inpaktuaren azterlana

Azpeitian, 2022ko maiatzaren 26an

azpeitikoudala
denon artean

UEMA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

# AURKIBIDEA

1. Sarrera.........................................................................
2. Proiektuaren deskribapena..............................................
3. Testuingurua.....................................................................
   a. Datu demografikoak...................................................
   b. Adierazle linguistikoak.............................................
   c. Euskararen inguruko baliabideak................................
   d. Ekipamenduak eta azpiegiturak..................................
4. Hizkuntza eraginaren ebaluazioa.......................................
   a. Galdetegi laburra.......................................................
   b. Bilakaera indizea.......................................................
   c. Eragin linguistikoaren intentsitatea..........................
   d. Funtsezko alderdiak..................................................
5. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak...................................

## 1. SARRERA

Lan honen helburua da ebaluatzea nolako hizkuntza eragina izango duen Amue11.UE eremuko Plan Bereziak.Eta euskararen erabilerari ahalik eta kalte txikiena egiteko neurri zuzentzaileak proposatzea. Amue eremua Azpeitiko hirigunearen erdian dago kokatua, Urola eta Ibaieder ibaien ondoan, hirigune historikoaren ondoan.Bertan sartzen dira Frantziskotarren komentua, Corrugados Azpeitia enpresaren lurzoruaren zati bat, galdaketari eta txatarraren biltegiratzeari dagokiona.

Azpeitia euskararen arnasgunea da. Herritar gehienek badakite euskaraz, eta herriko hizkuntza nagusia euskara da. Plan Berezian etxebizitzak eta hirugarren sektoreko erabilerarako izan diren eraikinak eta komunitate erabilerarako ekipamenduak eraikitzeko aukera jasotzen du. Hori horrela, biztanle kopuruan eragina izango du planak. Hori dela eta, eragin hori aztertzea beharrezkotzat jotzen da, prebentzio neurriak hartzeko asmoz. Hori da lan honen helburua. Planak euskararen erabileran izango duen eragina aztertzea, eta kalterik sortuz gero, neurri zuzentzaileak proposatzea.

## 2. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA eta HELBURUAK

### PLANAREN SUSTATZAILEAK

Azpeitiko Udala bera da proiektuaren sustatzailea. Krean enpresako kideak izan dira plana idatzi dutenak.

### HELBURUAK

- Hiri-eremuan integratzea, gaur egun Corrugados Azpeitia enpresak okupatzen duen industria-lurzoruaren herena inguru, hain zuzen ere, Hirigune Historikotik hurbilen dagoena. Batez ere bizitegietarako izango da.
- Batetik, egungo industria-sarearen eta lurzoruaren muturreko baldintzak aldatzea, bai eta komentu-lurzorua eta Urola ibaiaren aurreko lerrokaduran lehendik zeuden bizitegi-eraikinak eraldatzea ere, Ibaiederren ibilgua eta haren eskuinaldea Urolako bokaleraino berreskuratzeko. Bestetik, hiri-eremu hori berrantolatzea, batez ere bizitegitarako. Horiez gain, hirugarren sektorerako espazio libreak, ekipamenduak eta garapenak kokatuko dira.
- Guztira 468 etxebizitza eta hirugarren sektoreko erabileretarako 15.040 m (t) antolatzea, baita komunitatearen ekipamendurako zuzkiduretarako lurzoruak ere.
- Komentuko eraikuntza hirugarren sektoreko edo ekipamenduko erabileretarako finkatzea.
- Udalaren bide-sarearen esparruan integratzea, bai motordun nahiz motorrik gabeko mugikortasunari dagokiona, bai eta trenbideari dagokiona ere; horrela, industria-ezarpenaren

ondorioz bere garaian hipotekatutako trenbide-trazadura berreskuratuko da. Horrekin batera, eremua Alde Zaharrarekin eta, bereziki, Plaza Nagusiarekin, Garmendialde eta Enparan aldeko alboko bizitegiekin eta Landetarekin (hegoaldean) integratzeko baldintzak hobetzen lagunduko da.

- Proposatutako garapenarekin bateraezinak diren egungo eraikinak eraistea, aurretik zeuden industria-jarduerak Trukutxoko eremura eraman ondoren.

## DENBORAREN GAINEKO AURREIKUSPENAK

Ez dago daturik.

## PLANAREN DESKRIBAPENA

Azpeitiko HAPOn UE 11 Amue eremu gisa jasotzen dena hartzen du oinarri planak. Eremuak 90.492m²-ko azalera du. Bertan sartzen dira Frantziskotarren komentua, baita Corrugados Azpeitia enpresa gaur egun ezartzen den lurzoruaren zati bat ere, bere galdaketari eta txatarraren biltegiratzeari dagokiona.

Lehendik dauden kokalekuek Ibaieder ibaiaren mugaraino hartzen dute lurzorua, eta komentuko baratzeek okupatzen duten espazioa bakarrik askatzen da eraikinetik. Urolako trenaren trenbide zaharra ere hartzen du eraikinak. Ipar-mendebaldeko muturrean ere eraikin bat dago (Foru Pasealekua, 12), Ibaieder ibaiaren ibilguaren gainean.

Ibaieder ibaiaren gainean ere bi pasabide nabarmentzen dira: batetik, AMUEko zubia eta, bestetik, Urolako trenaren zubi zaharra, gaur egun erabiltzen ez dena.



## Planaren antolamendurako hainbat irizpide jaso dira:

1. Garapen berriaren ezarpenaren kota:

- Betelanak egitea, etorkizuneko bizitegi-eraikinak 500 urteko birgertatze-aldian uholdeak lortu ezin duen kotaren gainetik jartzeko. Kasu horretan, +87 kota izango da, edo, hala badagokio, URAK ezartzen duena.

2. Inguruko hiri-bilbearekin loturak:

- Bide berriak udalerriko bide-sarean sartzea (motorduna eta motorrik gabea).
- Trenbide-trazadura berreskuratzea.
- HAPOn planifikatutako bidegorriaren trazadurarekin jarraitzea.

3. Eraikigarritasuna eta eraikuntzaren tipologia:

- 43.740 m2 eraikigarritasun berrikoak (468 etxebizitza).
- 15.040 m2 hirugarren sektoreko erabileretarako.
- 2.800 m2 ekipamendu komunitariorako.
- Komentuko eraikuntza finkatzea, hirugarren sektoreko edo ekipamendutarako erabiltzeko. 7.688 m2
- Proposatutako garapenarekin bateraezinak diren industria-eraikinak eraistea.
- Eraikuntza-tipologia, kontuan hartuta eguzkimendua, eraikinaren altuera, erabilerak nahasteko aukera, kalitatezko hiri-espazioak (eguzkimendua, zarata-maila, hiri-bilbearekin lotutako hiri-espazioak, irisgarritasuna, genero-ikuspegia eta abar).

4. Eremu publikoak:

- Ibaieder ibaiaren eskuinaldea berreskuratzea, gaur egun bideratuta baitago. Ibai ertzeko pasealekua.
- Berdegunea/parkea, komentuaren etorkizuneko ekipamenduari laguntzeko.

5. Ondare katalogatuko elementuak finkatzea eta balioa ematea:

- Komentua. Hirugarren sektoreko erabilerara aldatzeko aukera.
- AmueZubia.

## Irizpide horien kontuan hartuta lau alternatiba proposatzen dira:

0. **aukera: esku ez hartzea**

## 1. aukera

Ezarritako antolamendu irizpideei eutsiz, antolamendu trinkoa ezartzen du etxesail irekiko blokeekin.



Etxebizitzak:

- Eraikuntza-tipologia: etxadi irekiak osatzen dituzten blokeek osatzen dute.
- Etxebizitzen orientazioa: etxebizitzek iparraldetik hegoalderako nahiz ekialdetik mendebalderako orientazioa izango lukete, zati berdinetan gutxi gorabehera.
- Eraikinaren zabalera gehien bat 15 m-koa izango da. Orientazio bakarreko etxebizitzak egon daitezke.
- Lurzoruaren okupazioa: bizitegi-erabilerarako lurzoruaren okupazioa txikiagoa da, eta blokeetan altuera handiagoa.

Ekipamenduak:

- Hirugarren sektoreko erabilera komentuaren eremuaren eta E1 eta E2 blokeetako beheko eta lehenengo solairuen artean banatzen da, eta zati bat E3aren beheko solairuan.

Eremu publikoak:

- Hiru espazio publiko daude etxebizitza-blokeen artean banatuta (horietako bi pribatuagoak dira, etxadiak osatzen direlako).

- Berdegune handia komentuaren ekipamenduaren eta ibai ertzeko pasealekuaren inguruan kokatzen da.
- Berdeguneak eta oinezko ibilbideak ezartzen dira inguruarekin lotura eginez.
- Joan XXXIII.a bidegorriaren jarraipena, bide berriarekiko paraleloan ezartzen da, Amueko zubiarekin lotuz.

**2. Aukera:**

Ezarritako antolamendu irizpideei eutsiz, antolamendu trinkoa ezarri da, etxebizitzako lau bloke linealekin.



Etxebizitzak:

- Eraikuntza-tipologia: Ekialdetik mendebaldera orientatutako bloke linealakproposatzen dira, batez ere.
- Etxebizitzen orientazioa: etxebizitzek batez ere iparraldetik hegoaldera joko lukete.
- Eraikinaren zabalera: batez ere 15 m-ko zabalerako blokeak. Orientazio bakarreko etxebizitzak egon daitezke.

- Lurzoruaren okupazioa: bizitegitarako lurzoru gutxiago okupatzea eta blokeetan altuera handiagoa.

Ekipamenduak:

- Hirugarren sektoreko erabilera komentuaren eremuaren, erdialdean dagoen eraikinaren eta E1 blokeko beheko solairuen artean banatzen da.

Eremu publikoak:

- Hiru espazio publiko, orientazio oneko etxebizitza-blokeen artean. Esparrura sartzeko bidearekin lotuak. Espazio publiko bat, plaza gisa, hirugarren sektoreko erabilera biltzen den eremuan.
- Berdegune handia komentuko ekipamenduaren, ibai ertzeko pasealekuaren eta etxebizitza-eraikinen arteko espazioaren inguruan.
- Berdeguneak eta oinezkoentzako ibilbideak, bilbearekin lotuz.
- Joan XXIII.a bidegorriaren jarraipena, bide berriarekiko paraleloan, Amueko zubiarekin lotuz.

**3. aukera:**

Finkatutako antolamendu-irizpideei eutsiz, antolamendu konplexuagoa ezarri da, etxebizitza-tipologia desberdineko eraikinak (12.5 eta 15eko zabalerakoak) eta erabilerak gehiago nahastuz (beheko solairuak hirugarren sektoreko erabilerekin).



Etxebizitzak:

- Eraikuntza-tipologia: bloke linealak eta etxadi irekiak proposatzen dira.
- Etxebizitzen orientazioa: etxebizitzek ekialde-mendebalde orientazioa izango lukete nagusiki.
- Eraikinaren zabalera: batez ere 12,5 m-ko zabalerako blokeak (bi norabidetan). Ibaitik hurbilen daudenak dira. Gainerakoek 15m-ko zabalera izango dute (orientazio bakarra duten etxebizitzak egon daitezke).
- Lurzoruaren okupazioa: bizitegi-erabilerarako lurzoruaren okupazio handiagoa eta blokeen altuera txikiagoa proposatzen da.

Ekipamenduak:

- Hirugarren sektoreko erabileren kontzentrazioa goiko aldean, plaza inguruko eraikin batean, E1 eraikineko beheko eta lehen solairuetan eta E3, E4 eta E5 eraikinetako beheko solairuetan.

Eremu publikoak:

- Blokeen arteko hiru espazio publiko (horietako bat pribatua, hirugarren sektoretik urrunago dagoelako). Itzalean dauden eremu handiagoak.
- Berdegune handia komentuko ekipamenduaren, ibai ertzeko pasealekuaren eta etxebizitza-eraikinen arteko espazioaren inguruan.

- Berdeguneak eta oinezkoentzako ibilbideak, bilbearekin lotuz.
- Joan XXIII.a bidegorriaren jarraipena, bide berriarekiko paraleloan, Amueko zubiarekin lotuz.

**4. aukera:**

Finkatutako antolamendu-irizpideei eutsiz, antolamendu hedakorragoa ezartzen da, bloke linealak dira, zabalera ezberdinekoak (12.5 eta 15ekoak). Hirugarren sektoreko erabilerak plaza batean kontzentratzen dira.



Etxebizitzak:

- Eraikuntza-tipologia: bloke linealak.
- Etxebizitzen orientazioa: ekialde-mendebalde orientazioa izango lukete nagusiki.
- Eraikinaren zabalera: batez ere 15 m-ko zabalerako blokeak (orientazio bakarreko etxebizitzak egon daitezke).
- Lurzoruaren okupazioa: bizitegitarako lurzoru gutxiago okupatzea eta blokeetan altuera handiagoa.

Ekipamenduak:

- Hirugarren sektoreko erabileren kontzentrazioa beheko aldean, komentuaren eremuan eta plaza inguruko bi eraikinetako (E1 eta E2) beheko solairuetan.

Eremu publikoak:

- Oinezkoentzako eremu publikoak komentuaren eremua eta etxebizitzen eremua lotzen ditu, Ibaiederren ibilguarekiko paralelo dagoen hiri jarraitu batean.
- Batez ere ibaiertzeko parkean dagoen berdegunea.
- Berdeguneak eta oinezkoentzako ibilbideak, bilbearekin lotuz.
- Joan XXIII.a bidegorriaren jarraipena, bide berriarekiko paraleloan, Amueko zubiarekin lotuz.

# 3. TESTUINGURUA

Atal honetan udalerria bera hartuko da aztergai, proiektua testuinguruan jartze aldera.

## a. Datu demografikoak

**Azpeitikobiztanleriarenbilakaeraetaegitura**

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, Azpeitiak 14.540 biztanle ditu. Duela 30 urteko populazioarekin konparatuz, biztanleriak % 9,2 egin du gora (1.344 pertsona).

Urola-Kostako biztanleriak Azpeitikoak baino hazkunde handiagoa izan du 1981etik 2011ra bitartean, % 16,4koa hain zuzen (12.040 biztanleko hazkundea).

EAEn eta Gipuzkoan ia ez da hazkunderik izan. Are gehiago, 1991ko eta 2001eko hamarkadetan biztanleriak behera egin zuen.

Biztanleriarenbilakaera.1981-2011

| | 1981 | 1991 | 2001 | 2011 |
|---|---|---|---|---|
| Azpeitia | 13.196 | 13.427 | 13.708 | 14.540 |
| Urola-Kosta | 61.410 | 63.162 | 66.428 | 73.450 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Gipuzkoa | 694.681 | 676.488 | 673.563 | 705.210 |
| EAE | 2.141.809 | 2.104.041 | 2.082.587 | 2.179.815 |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsuak*

Azken 30 urteotako biztanleriaren zahartze-prozesuak eragina izan du Azpeitian, baina EAEn eta Gipuzkoan baino neurri txikiagoan.

Horrela, 1981-2011 epean, 65 urtetik gorako populazioaren ehunekoak 8,3 puntuko igoera izan du. Azpeitiarren % 9,6 ziren 65 urte edo gehiagokoak 1981ean; 2011n, aldiz, % 17,9 dira.

Era berean, 20 urtetik beherakoen ehunekoa ere jaitsi egin da. Horrela, 20 urte baino gutxiagokoak biztanleriaren % 35,3 ziren 1981ean; 2011n, aldiz, % 21,1 dira.

| Adina | 1981 | 1991 | 2001 | 2011 |
|---|---|---|---|---|
| ≥65 | 9,6 | 12 | 14,6 | 17,9 |
| 20-64 | 55,2 | 59,5 | 64 | 61 |
| 0-19 | 35,3 | 28,5 | 21,3 | 21,1 |
| **Guztira** | **13.196** | **13.427** | **13.708** | **14.540** |

Azpeitiko biztanleriaren piramidearen bilakaera, 1981-2011 (%)




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*

## Atzerrikoimmigrazioa

Azpeitira etorritako atzerriko immigrazioa aztertzeko, azken hamarkada aztertuko dugu, hots 2001-2011 artekoa.

2011n biztanleen % 6 da atzerritarra. 2001ean, aldiz, % 0,9 ziren atzerritarrak. Horrek esan nahi du, atzerriko biztanleria duela 10 urte baino sei aldiz handiagoa dela (855 atzerritar 2011n eta 121 hamar urte lehenago).




Gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino (% 55,3 gizonezkoak eta % 44,7 emakumezkoak).

Era berean, adinaren araberako banaketa egiterakoan, atzerriko biztanleriaren ezaugarririk nagusienetakoa islatzen da piramidean. Ikus daitekeenez, biztanleria oso gaztea da, hamar lagunetik bederatzi baino gehiago 50 urtetik beherakoak baitira.

Adin-talde jakin batzuetan, bereziki 20 eta 40 urte bitartekoetan, atzerriko populazioak pisu handia du biztanleria osoarekiko (% 11,1 batez beste). 65 urtetik gorako adin-taldeetan, berriz, atzerriko biztanleek ehuneko txikia osatzen dute (% 1 baino gutxiago dira).




*Iturria: Ikuspegi*

Jatorriari dagokionez, amerikarrek Azpeitiko atzerriko biztanleriaren % 33,8 osatzen dute. Europarrek beste % 31, afrikarrek % 25,3 eta asiarrek gainerako % 9,9.




*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsua,2011*

## b. Adierazle linguistikoak

### Hizkuntza gaitasuna

*Bosturteedogehiagoko11.342azpeitiar elebidunak dira,biztanleriaren%83,8.*

Hizkuntza-gaitasuna.Azpeitia,2011(%).




*Iturria:EUSTAT*

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 13.528 pertsona bizi dira Azpeitian. Horietatik, 11.342 pertsona (% 83,8) elebidunak1 dira. Beste 669 pertsona (% 5) elebidun hartzaileak2 dira. Azkenik, 1.517 pertsona (% 11,2) erdaldunak3 dira.

Atzera begiratuz gero, hau da, 1981eko datuei erreparatuz gero, esan daiteke ia ez dela aldatu elebidunen ehunekoa (% 83,9 versus % 83,8). Azken 10 urteak kontuan hartuz, ordea, jaitsi egin da elebidunen ehunekoa, 4,8 puntuko beherakada izan baitu. Elebidunak % 88,6 ziren 2001ean eta % 83,8 dira 2011n.

---

[1]Elebidunagaidaeuskarazondoedonahikoondo ulertzekoetahitzegiteko.

[2]Elebidunhartzaileagai da euskarazondoulertzeko,nahizetaondoezhitzegin.Bestela, ondoulertzekogaiezbada,gaidazailtasunezbadaere,hitz egiteko.

[3]Erdalduna ezdagaiezeuskarazulertzeko,eztahitzegitekoere.

Elebidunenbilakaera.Azpeitia,1981-2011(%)




*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZen*

Azken hamarkadako biztanleriaren joan-etorriek, atzerriko etorkinen hazkundeak etaoraingoek baino euskaldunen ehuneko handiagoa zuten jende nagusiaren heriotzakelebidunenhazkundeamurriztuegindu.

Elebidun hartzaileen ehunekoak ez dira asko aldatu, nahiko antzekoak dira: % 4,3 ziren2001ean, eta%5dira2011n.

Erdaldunekgoraegindute;azkenhamarkadan,batezere:%7,1ziren2001ean eta %11,2,aldiz, 2011n.

Hizkuntza-gaitasunarenbilakaera.Azpeitia,1981-2011(%)

| | 1981 | 1991 | 2001 | 2011 |
|---|---|---|---|---|

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elebidunak | 83,9 | 88,4 | 88,6 | 83,8 |
| Elebidunhartzaileak | 6,1 | 3,9 | 4,3 | 5,0 |
| Erdaldunak | 10,0 | 7,8 | 7,1 | 11,2 |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsuak*

### Hizkuntza-gaitasunaadinarenarabera

Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera aztertzerakoan, aipagarria da 5-19 urte bitartekoenartean % 93,5 elebidunak direla. Hauek dira elebidunen ehunekorik altuena duten adin-taldeak. Era berean, adin horretako euskaldun hartzaileen ehunekoa ez da % 3ra iristen.Erdaldunen ehunekoa ere baxuena dute: % 5,3koa da 05-09 urte bitartekoen artean eta % 4bainotxikiagoa10-19urte bitartekoenartean.

Elebidunak adinaren arabera. Azpeitia, 2011 (%)




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011*

5-19 urte bitartekoez, gain, elebidunen ehunekorik altuena duten adin-taldeak 20-24 urte eta85urte edogehiagodituztenenakdira(%85,5eta %85,hurrenezhurren).

Elebidun gutxien 25-84 urte bitartekoen artean daude, batez ere 25-44 bitartekoen artean (%80,2, batez beste). Elebidun hartzaileek pisu handiagoa dute adin hauetan, batez ere 40-

44urtebitartekoenartean(%8).

Erdaldunei dagokienez 20 urtetik gorakoen artean gora egiten dute nabarmen aurreko adin-taldeekiko(%10-%15,3bitarteandiraerdaldunak).Adin-taldeerdaldunenehunekorik altuenakdituztenak,25-29eta80-84urtebitarteandituztenakdira,%15,3 baitiraerdaldunak adintalde horietan.

Hizkuntza-gaitasunaadinarenarabera.Azpeitia,2011(%)

| | Azpeitia | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Guztira | Elebidunak | Elebidun hartzaileak | Erdaldunak |
| ≥85 | 280 | 85,0 | 1,4 | 13,6 |
| 80-84 | 372 | 81,5 | 3,2 | 15,3 |
| 75-79 | 522 | 82,0 | 5,4 | 12,6 |
| 70-74 | 571 | 84,8 | 4,6 | 10,7 |
| 65-69 | 711 | 82,3 | 3,8 | 13,9 |
| 60-64 | 917 | 85,8 | 4,3 | 9,9 |
| 55-59 | 861 | 82,0 | 5,0 | 13,0 |
| 50-54 | 1.026 | 82,0 | 6,0 | 12,0 |
| 45-49 | 1.058 | 81,3 | 7,2 | 11,5 |
| 40-44 | 1.091 | 79,0 | 8,0 | 13,0 |
| 35-39 | 1.188 | 79,2 | 7,4 | 13,4 |
| 30-34 | 1.089 | 83,1 | 5,1 | 11,8 |
| 25-29 | 896 | 79,2 | 5,5 | 15,3 |
| 20-24 | 773 | 85,5 | 3,2 | 11,3 |
| 15-19 | 685 | 94,0 | 2,0 | 3,9 |
| 10-14 | 700 | 93,7 | 2,6 | 3,7 |
| 05-09 | 788 | 92,8 | 1,9 | 5,3 |
| **GUZTIRA** | **13.528** | **83,8** | **5,0** | **11,2** |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsua,2011*

1981-2011 aldian hizkuntza-gaitasunaren bilakaera zer-nolakoa den aztertzean, ikusten da1981ean, hau da, 30 urte lehenago, euskaldunen ehunekorik altuena zutenak 60 urtetikgorakoak zirela (% 88,5 batez beste) eta, orain ez bezala, adinean behera egin ahala, jaitsiegiten zela euskaldunen ehunekoa. Gaur egun, ordea, gazteen artean dago euskaldunenehunekorikhandiena.

Elebidunen bilakaera adinaren arabera. Azpeitia, 1981-2011 (%)

**1981**




**2011**




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*

1981ean erdaldunen ehunekorik handiena 25-64 urte bitarteko helduen artean zegoen (%12,3 batez beste). Gaur egun ere, adin talde horietan erdaldunen ehunekoa ordukoarenantzekoada,etanagusiagoekereantzekoehunekoakdituzte.Gauregun,20urtetikbehera koekdituzte ehunekoriktxikienak(%4,4,batezbeste).

Elebidun hartzaileei dagokienez, 1981ean ehunekorik handiena gazteenen artean zegoen, %11,9 elebidun hartzaileak baitziren 10-14 urte bitartekoen artean; eta gutxituz zihoan adineanaurrera egin ahala. Elebidunekin bezala, aldaketa gertatu da 30 urte hauetan.Izan ere, gauregun, elebidunhartzaileenehunekorik handiena,40-44urtebitartekoenarteandago(%8).

Elebidunenbilakaeraadinarenarabera.Azpeitia,1981-2011(%)

| Adina | Elebidunak | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **1981** | **1991** | **2001** | **2011** |
| **≥85** | 80,7 | 89,3 | 80,5 | 85,0 |
| **80-84** | 86,7 | 87,9 | 86,5 | 81,5 |
| **75-79** | 88,4 | 86,4 | 86,7 | 82,0 |
| **70-74** | 91,9 | 88,5 | 85,8 | 84,8 |
| **65-69** | 89,3 | 90,2 | 84,4 | 82,3 |
| **60-64** | 86,6 | 86,6 | 85,2 | 85,8 |
| **55-59** | 85,5 | 83,7 | 83,6 | 82,0 |
| **50-54** | 84,2 | 83,9 | 88,3 | 82,0 |
| **45-49** | 82,6 | 85,8 | 84,7 | 81,3 |
| **40-44** | 82,6 | 88,5 | 84,8 | 79,0 |
| **35-39** | 82,6 | 84,6 | 84,4 | 79,2 |
| **30-34** | 84,9 | 84,4 | 85,2 | 83,1 |
| **25-29** | 81,1 | 86,4 | 88,8 | 79,2 |
| **20-24** | 84,3 | 86,9 | 95,7 | 85,5 |
| **15-19** | 81,1 | 92,7 | 97,0 | 94,0 |
| **10-14** | 83,0 | 96,1 | 99,4 | 93,7 |
| **05-09** | 83,7 | 96,4 | 97,5 | 92,8 |
| **GUZTIRA** | **83,9** | **88,4** | **88,6** | **83,8** |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsuak*

## LehenhizkuntzaAzpeitian

*Azpeitiko biztanleriaren % 79,4k euskara jaso du etxean: % 76k euskara soiliketa%3,4keuskaragaztelaniarekinbatera.*

Lehenhizkuntzariburuzarigarenean,umeakhiruurtebeteartegurasoengandikedoumearekinbizidirensenitartekoengandikjasotakohizkuntzariedohizkuntzeiburuzdihardugu.

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuko datuen arabera, Azpeitian bost urte edogehiagoko biztanleen % 76k euskara soilik jaso du etxean eta beste % 3,4k euskara etagaztelania jaso ditu. Era berean, hamarretik ia bik gaztelania soilik jaso du etxean (% 17,8).Azkenik,%2,8keuskaraedogaztelania ezdenbestehizkuntzabatjasodu.




*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsua,2011*

Horrela, bost urte edo gehiagoko 10.283 azpeitiarren lehen hizkuntza euskara soilik da, etabeste 458ren lehen hizkuntza ere bada, baina gaztelaniarekin.Beste 2.404 azpeitiarrekgaztelaniasoilik jasoduetxean,etaazkenik,beste 383kbestehizkuntza bat.

Azken hamarkadako atzerritarren immigrazioa dela-eta, gero eta biztanle gehiagok euskaraedogaztelania ezden beste hizkuntza batjasodu etxean.

Lehenhizkuntzarenbilakaera.Azpeitia,2011

| | Guztira | Euskara | Euskara etaGaztelania | Gaztelania | Bestebat |
|---|---|---|---|---|---|
| 1986 | 12.363 | 10.391 | 136 | 1809 | 27 |
| 1991 | 12.742 | 10.693 | 196 | 1829 | 24 |
| 2001 | 12.927 | 10.603 | 289 | 1920 | 115 |
| 2011 | 13.528 | 10.283 | 458 | 2.404 | 383 |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsua,2011*

Azpeitianazken hogeita bosturteotan, lehen hizkuntzaeuskara soilikdutenen ehunekoajaitsi egin da (8,1 puntu). Igo egin da, aldiz, gaztelania (3,1 puntu), beste hizkuntza bat

(2,6puntu)etaeuskara etagaztelania jasodutenen ehunekoa(2,3 puntu).




**Lehenhizkuntzaadinarenarabera**

Lehenhizkuntzaeuskarasoilikdutenenehunekoa%81etikgorakoada60urteedogehiagokoen. Gainerako adin-taldeetan ehunekoa txikiagoa da. Ehunekorik txikiena 5-9 urtebitartekoek dute(%67,9).

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania dutenen artean, aldiz, ehunekorik altuena 5-9 urtebitartekoek dute (% 11,3) eta baita 10-24 urte bitartekoek ere (% 7,2 batez beste). Adineangora egin ahala, behera egiten du etxean euskara eta gaztelania jaso dutenen ehunekoak,eta 40urtetikgorakoenartean%3 bainotxikiagoa da.

Lehen hizkuntza gisa gaztelania dutenen ehunekorik altuena 25-54 urte bitartekoek dute (%19,6 batez beste), eta txikiena 60 urtetik gorakoek (% 15,4 batez beste) eta 19 urtetikbeherakoek (%15,3batezbeste).

Azpeitian euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenen ehunekoa % 4tikgorakoada20-45urtedituztenenartean.Gaztelanialehenhizkuntzadutenekingertatzendenbezala,atzerrikohizkuntzabatdutenenehunekoarehandiagoada25-29urtedituztenen artean(%5,8).




*Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsua, 2011*

Azpeitiko lehen hizkuntzaren bilakaerari dagokionez, duela 25 urte lehen hizkuntza euskarasoilikzutenen ehunekorikaltuena55 urtetik gorakoekzuten (%86 baino gehiago),eta behera egiten zuen adinean behera egin ahala, 15-24 urte bitartekoek zutelarik ehunekotxikiena(%81,4).Gauregunere60urtetikgorakoekduteehunekorikaltuenaeta,salbuespen ak salbuespen, 40 urtetikbeherakoek txikiena (batez ere 20-29 eta 5-9 urtebitartekoek).

Lehen hizkuntza euskara eta gaztelania zutenei dagokienez, oraingo ume eta gazteek bainoaskoz ehuneko txikiagoa zuten. Oso txikia zen ehunekoa adin talde guztietan (% 1,1 batezbeste).

Duela 25 urte lehen hizkuntza gaztelania zutenen ehunekoa oraingoa baino txikiagoa zen

iaadintaldeguztietan,10-19urtezituztenenarteanizanezik,nahizetaaldeaosotxikiaizan(%15,2ziren 1986an eta %13,8dira 2011n).

Era berean, euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat zutenen ehunekoa oso txikiazen adin talde guztietan. Gaur eguneko ehunekoarekin alderatuz, 5 puntuko aldea dagoadin-taldebatzuetan.1986an25-29urtebitartekoenartean%0,3kzuteneuskaraedogaztelaniaezden bestehizkuntza bat;2011n,aldiz,%5,8dira.

Lehen hizkuntzaren bilakaera adinaren arabera. Azpeitia, 1986-2011 (%)




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*

### Elebidunaklehenhizkuntzarenarabera

Elebidunenhizkuntza-ibilbideaaztertukodajarraian.Horretarako,lehenhizkuntzaetahizkuntza-gaitasunaaldagaiakgurutzatukodira.

Elebidunakhirumultzotanbanatudiraeurenlehenhizkuntzarenarabera:euskaldunzaharrak,jatorrizko elebidunaketaeuskaldun berriak.

2011ko Zentsuaren arabera, Azpeitian bost urte edo gehiagoko elebidunen % 89,6k euskarahutsikjasoduetxean,hauda,euskaldunzaharrada.Euskaldunzaharrak10.165diraAzpeitian

.

% 3,8k euskara eta gaztelania jaso ditu, eta jatorrizko elebiduna da. 428 azpeitiar dirajatorrizkoelebidunak.

Azkenik,etxeangaztelaniaedobestehizkuntzabatjasodutenelebidunak%6,6dira,hauda, euskaldun berriak dira. 749 azpeitiar dira euskaldun berriak. Euskaldun berriak etxetikkanpoeuskaldundudira,eskolanedoeuskaltegian.Azpeitikoelebidungehienenlehenhizkuntzaeuskarabadaere,geroetagehiagokbigarrenhizkuntza du euskara.




*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsua,2011*

Elebidunen multzoa aldatuegin da azken 25 urteotan, nahiz eta gaur egun ere hamarelebidunetikbederatzieuskaldunzaharrakizan.1986neuskaldunberrienehunekoaoraingoar

en erdia zen (% 3,1 versus % 6,6) eta are txikiagoa zen jatorrizko elebidunenehunekoa(%1,1versus%3,8).

Elebidunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera.
Azpeitia, 1986-2011 (%)




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*

**Elebidunaklehenhizkuntzarenetaadinarenarabera**

Elebidunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera aztertzerakoan, azpimarratzekoa dadesberdintasunak handiak direlagazteenenetanagusienen artean.

Horrela, 20 urtetik beherako azpeitiar elebidunen % 13,7k erdara du lehen hizkuntza, hauda, euskaldun berria da. Era berean, 20-34 urte bitarteko elebidunen artean ere, % 8,3euskaldunberriak dira.

Bestalde, 30 urte baino gehiago dituzten elebidunen artean, euskaldun berrien ehunekoagutxituzdoanabarmenadineangoraeginahala.Horrela,65urteedogehiagokoelebidunen %1,2diraeuskaldunberriak.

Euskaldun zaharren ehunekorik handiena 50 urte edo gehiagokoek dute (% 96,3, batezbeste).Adineanbeheraeginahalajaitsizdoaehunekoa,etaelebidunen%76,8diraeuskaldunzaharrak20urtebainogutxiagodituztenen artean.

Jatorrizko elebidun gehienak gazteak dira. Adinak behera egin ahala, haziz doa

jatorrizkoelebidunenehunekoa.Hazkundehorihandiada20urtetikbeherakoenartean(%6,9).Ehunekorik handiena 5-9urtetikbeherakoekdute(%11,9).

Elebidunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Azpeitia, 2011 (%)




*Iturria: Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsua, 2011*

Adinarenaraberakobilakaeraridagokionez,azkenhogeitabosturteotan,euskaldunzaharren ehunekoa berdintsu mantendu da 65 urte edo gehiago dituztenen adin-taldeetan,baina behera egin du gainerakoetan, batez ere gazteenen artean. 2011n elebidunen % 72,2diraeuskaldunzaharrak5-9urtebitarteandituztenenartean;duelahogeitabosturte,aldiz, %89,8ziren.

Jatorrizko elebidunak, aldiz, gehiago dira gaur egun ia adin-talde guztietan. Hala ere, 45urtetik gorakoen artean, 1986ko eta gaur egungo ehunekoen artean aldea txikia da, hau da,puntu batingurukoa.

Euskaldun berriei dagokienez, are handiagoa da aldea, nagusi-nagusienen artean izan

ezik,gehiagobaitiragauregun1986anbainoadin-taldeguztietan;batezere,55urtetikbeherakoenartean.

**EuskararenerabileraetxeanAzpeitian**

*Azpeitiko biztanleriaren % 77,5ek euskara erabiltzen du etxean: % 70ek euskaraerabiltzendu beti edoiabeti,eta% 7,5ekeuskaragaztelaniarekinbatera.*

2011ko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuaren arabera, bost urte edo gehiagoko 13.528pertsona bizi dira Azpeitian. Horietatik, % 70ek euskara erabiltzen du etxean beti edo ia beti(9.464pertsona),eta% 7,5ekeuskaraetagaztelania (1.016pertsona).

Etxeangaztelaniaerabiltzendutenak%20,9dira(2.832pertsona)etaeuskaraedogaztelaniaezden bestehizkuntza bat erabiltzen dutenak %1,6(216pertsona).




Azken 20 urteotan, euskararen erabilerak etxean behera egin du. 1991n euskara beti edo iabetierabiltzen zutenak %77,6ziren;2001ean%76,8,eta2011n%70dira.

Etxean euskara eta gaztelania erabiltzen dutenen ehunekoak ere jaitsiera txiki bat izan du1991

eta 2011 bitartean. 1991n % 8,6 ziren etxean hizkuntza biak erabiltzen zituztenak,2001ean%8,4,eta 2011n %7,5.

Hortaz, euskara beti edo ia beti eta euskara eta erdara erabiltzen dutenen ehunekoak 8,7puntukojaitsieraizan du(%86,2versus%77,5).

Gaztelaniaren erabilerak gora egin du: 1991n % 13,7 ziren, 2001ean % 14,2, eta 2011n %20,9.

Azpimarratzekoa da etxean euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat erabiltzendutenenhazkundea.1991neta2001ean%0,1eta%0,5zirenhurrenezhurren,eta2011n %1,6da.

Etxekohizkuntzarenerabilerarenbilakaera.Azpeitia,1991-2011(%)

| | Euskara | Euskaraet agaztelani a | Gaztelania | Beste bat |
|---|---|---|---|---|
| 1991 | 77,6 | 8,6 | 13,7 | 0,1 |
| 2001 | 76,8 | 8,4 | 14,2 | 0,5 |
| 2011 | 70,0 | 7,5 | 20,9 | 1,6 |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsuak*

**Euskararenerabileraetxeanadinarenarabera**

2011koBiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsuarenarabera,etxeaneuskaragehienerabiltzen dutenak 60 urtetik gorakoak dira (% 77,9, batez beste). Ondoren,5-19 eta 30-59urtebitartekoakdiraeuskaragehienerabiltzendutenaketxean(%69,1,batezbeste).Euskara beti edo ia beti erabiltzen dutenen artean, ehunekorik txikiena 20-29 urte bitartekoekdute(%58,4).

Etxeaneuskaraetagaztelaniaerabiltzendutenenehunekorikhandiena35urtetikbeherakoek dute (% 11, batez beste). Adinak gora egin ahala, behera egiten du etxeanhizkuntzabiak erabiltzen dituztenen ehunekoak.




Gaztelaniarenerabilerarikhandienaetxean20-
29urtebitartekoekdute(%27)etatxikiena60urtetikgorakoek(%17,8,batezbeste).

Azkenik,euskaraedogaztelaniaezdenbestehizkuntzabaterabiltzendutenenportzentajerikhan
diena20-49 urtebitartekoekdute(%2,8,batezbeste).




Adinaren araberako bilakaerari dagokionez, Azpeitian duela 20 urte ez zegoen alde handiriketxeaneuskarabeti edoia beti erabiltzen zutenenehunekoetanadin desberdinen artean.

Horrela, 5-19 urte bitartekoen artean euskara beti edo ia beti erabiltzen zutenak % 77,9 zirenbatez beste, 30-59 urte bitartekoen artean % 77,8 eta 60 urtetik gorakoen artean % 79,5.Erabilerarik txikiena,2011nbezala, 20-29urtebitartekoek zuten(%74,batezbeste).

1991n 15 urtetik beherakoak, 30-34 eta 65-69 urte bitartekoak ziren euskara eta gaztelaniagehienerabiltzenzutenak etxean (%10bainogehiago).

Horrez gain, 1991n gaztelania gutxien erabiltzen zutenak, 65 urtetik gorakoak eta 15 urtetikbeherakoak ziren (% 11-12 inguru) eta gehien erabiltzen zutenak, 20-29 eta 50-59 urtebitartekoak(%16 inguru).

Bestehizkuntzenerabileraridagokionez, 1991nosotxikiazen,hauda,%0,1 batezbeste.

**Euskararen erabileraren bilakaera etxean adinaren arabera. Azpeitia, 1991-2011 (%)**




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak*

## Euskararenerabileraetxeanelebidunenartean

Atal honetan elebiduneneuskararen erabilera etxean aztertuko da. Euskara erabiltzekogaitasuna dutenak bakarrik izango dira kontuan. Hortaz, elebidun hartzaileak eta erdaldunakezdira sartuko.

Elebidunen%83,3keuskaraerabiltzenduetxean,%8,8keuskaraetaerdaraetagainerako %7,9kezdueuskararikerabiltzenetxean.




*Iturria:BiztanleriareneataEtxebizitzenZentsua,2011*

Duela 20 urte Azpeitian etxean euskara edo biak erabiltzen zituzten euskaldunen ehunekoahandiagoa zen (% 96,4). Horietatik, % 87,8k euskara beti edo ia beti erabiltzen zuen euskaraetxean eta % 8,6k euskara eta erdara. Hortaz, 4,3 puntuko jaitsiera izan du euskara beti edoia beti, eta euskara eta erdara erabiltzen duten elebidunen ehunekoak (% 96,4 versus %92,1).

ElebiduneketxeanerabiltzendutenhizkuntzarenbilakaeraAzpeitia,1991-2011

| Elebidunak | Azpeitia | | | Azpeitia(%) | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1991 | 2001 | 2011 | 1991 | 2001 | 2011 |
| Euskara | 9.888 | 9.930 | 9.449 | 87,8 | 86,7 | 83,3 |
| Euskaraetaerdara | 967 | 936 | 994 | 8,6 | 8,2 | 8,8 |
| Erdara | 405 | 581 | 558 | 3,6 | 5,1 | 7,9 |

*Iturria:BiztanleriareneataEtxebizitzenZentsuak*

Elebidunenirabazirikhandienakeuskaldunberrietatikdatoz. Gero etaelebidungehiagodago

etxean erdara jaso duena eta euskara etxetik kanpo ikasi duena. Lehen hizkuntzaerdaraizateakeraginzuzenadueuskaraerabiltzekoerraztasunarekin.Horrezgain,har reman-sarea erdalduna izateak, kasu honetan etxeko kide guztiak edo batzuk erdaldunakizateak,zaildu egiten dueuskarazegitea etxean.

Euskaldunen erabilera lehen hizkuntzaren arabera aztertuz gero, garbi ikusten da lehenhizkuntza euskara izateak duen eragina etxeko erabileran. Horrela, lehen hizkuntza euskarahutsik izan dutenen, hau da, euskaldun zaharren % 90,5ek euskara erabiltzen du etxean, %6,7keuskaraetaerdara,eta % 2,7kezdueuskararik erabiltzenetxean.

Lehen hizkuntza euskara eta erdara batera jaso dituztenen artean asko jaisten da erabilera.Jatorrizkoelebidunen%33,9keuskaraerabiltzenduetxean,%50,9keuskaraetaerdara ,eta%15,2kezdueuskararikerabiltzen etxean.

Euskaldun berrien kasuan,erabilera txikiagoa da.Izan ere,lehen hizkuntza erdara izanduteneuskaldunen%13,4keuskaraerabiltzenduetxean,%12,1ekeuskaraetaerdara,eta%7 4,5ek ezdueuskararik erabiltzen.

Elebidunek etxean erabiltzen duten hizkuntza, lehen hizkuntzaren arabera. Azpeitia, 2011 (%)




*Iturria: Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua, 2011*

Duela 20 urte baino euskaldun zahar gutxiagok erabiltzen du euskara beti edo ia beti

etxean,nahizetaaldea txikiaizan,%92,8 baitziren 1991n eta% 90,5dira2011n.

Jatorrizko elebidunen erabilerak, ostera, gora egin du. Gero eta jatorrizko elebidun gehiagokerabiltzen du euskara etxean beti edo ia beti, 26,4 puntuko igoera izan du ehunekoetanazken20 urteotan(%6,5versus%33,9).

Era berean, gero eta euskaldun berri gehiagok erabiltzen du euskara etxean beti edo ia beti.1991n euskaldun berrien % 6,9k erabiltzen zuen euskara beti edo ia beti etxean; 2011n,ordea,%13,4k.

Etxeaneuskara(ia)betierabiltzendutenelebidunenbilakaeralehenhizkuntzarenarabera. Azpeitia,1991-2011

| | 1991 | | 2001 | | 2011 | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Kopurua | (%) | Kopurua | (%) | Kopurua | (%) |
| **Euskaldunzaharrak** | 9.844 | 92,8 | 9.847 | 93,3 | 9.204 | 90,5 |
| **Jatorrizkoelebidunak** | 34 | 6,5 | 16 | 6,1 | 145 | 33,9 |
| **Euskaldunberriak** | 10 | 6,9 | 67 | 10,7 | 100 | 13,4 |

*Iturria:BiztanleriarenetaEtxebizitzenZentsuak*

## LABURBILDUZ

- Gero eta biztanleria zaharragoa izateak eta atzerriko immigrazioak izan duen hazkundeak eragina izan du azken urteotako hizkuntzaren bilakaeran. Azpeitian gaur egun% 17,9 dira 65 urtetik gorako biztanleak; 1981ean, aldiz, % 9,6 ziren. Atzerriko etorkinei dagokienez, berriz, Azpeitiko biztanleen % 6 dira gaur egun, eta ez zen % 1era iristen 10 urte lehenago.

- Bost urte edo gehiagoko biztanleen % 83,8 elebiduna da, % 5 elebidun hartzailea eta% 11,2 erdalduna. Gaur egun, 11.342 elebidun daude Azpeitian, 1981ean baino 1.308 elebidun gehiago.

- Elebidunen ehunekorik handiena 20 urtetik beherakoen artean dago. 5-19 urte bitartekoen artean % 92 baino gehiago dira elebidunak gaur egun. Horiez gain, 20-24 urte eta 85 urte artean edo gehiago dituztenek dute elebidunen ehunekorik altuena (% 85,5 eta % 85, hurrenez hurren).

- Lehen hizkuntzari dagokionez, lehen hizkuntza soilik euskara dutenen ehunekoa duela 25 urte baino txikiagoa da (% 76 versus % 84,1). Era berean, gero eta ume gehiagoren lehen hizkuntza da euskara gaztelaniarekin batera. Horrela, % 11,3 dira jatorrizko elebidunak 5-9 urte bitartekoen artean.

- Atzerriko immigrazioaren eraginez, gero eta gehiago dira lehen hizkuntza euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntza bat dutenak, batez ere gazteak (% 5,8 dira 25-29 urte bitartean dituztenen artean).

- Elebidun gehienak euskaldun zaharrak dira. Hamar elebidunetik ia bederatzi dira euskaldun zaharrak (% 89,6), jatorrizko elebidunak % 3,8 dira; hau da, etxean jaso dute euskara (% 93,4). Etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat jaso duten elebidunak, hau da, euskaldun berriak % 6,6 dira.

- Adinak behera egin ahala, gero eta handiagoa da euskaldun berrien ehunekoa. Izan ere, 15 urtetik beherako azpeitiar elebidunen % 15,6k erdara du lehen hizkuntza.

- Etxeko erabilerak behera egin du azken 20 urteotan. 1991n Azpeitiko biztanleen % 77,6k erabiltzen zuen euskara beti edo ia beti etxean, eta % 70ek 2011n.

- Duela 20 urte ez zegoen alde handirik adinaren araberako erabileran. Gaur egun, 60 urte edo gehiagokoak dira etxean euskara gehien erabiltzen dutenak.

- Duela 20 urte baino jatorrizko elebidun eta euskaldun berri gehiagok erabiltzen du etxean euskara beti edo ia beti. Euskaldun zaharren artean, berriz, erabilera zertxobait jaitsi da.

### c. Euskararen inguruko baliabideak

Azpeitiko Udalak euskararen normalizaziorako Euskara Patronatua dauka eta UEMAko kide da, eta indarrean du euskararen erabilera sustatzeko plana.

### d. Ekipamenduak eta azpiegiturak

Azpeitiak hainbat oinarrizko zerbitzu publiko ditu herritarren eskura. Horien artean dira osasun zentroa, haur-eskola, haur-txokoak, gaztelekua, liburutegia, kiroldegia, igerilekua, erretiratuentzako txokoa, adindu eta ezinduentzako eguneko zentroa, auzo-taxia eta autobus-zerbitzua, besteak beste. Halaber, ondare

aberatsa dauka. Esaterako, Enparan dorretxea, Antxieta etxea, San Sebastian eliza eta Loiolako Basilika daude Azpeitian.

# 4. HIZKUNTZA ERAGINAREN EBALUAZIOA

Atal honetan jaso da Ieraregibizkar errotaren birgaitzearen eragin linguistikoa aztertzeko egin den bidea, 2/2016 Legea eta 179/2019 Dekretua zer urrats eta zer analisi egin diren.

## IRISMEN DOKUMENTUA EGITEA

Planak tokiko biztanle-kopuruan zein egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio Azpeitiko Udalak ELE batzordeari.

### a. Galdetegi laburra

Irismen dokumentua egitea da legeak ezarritako aurreneko pausoa, eta horretarako, egitasmoari buruzko galdetegi laburra erantzun behar da:

**1. PLANAREN/EGITASMOAREN GAINEKO DATUAK**

| | |
|---|---|
| Eremua | Azpeitia |
| Udalerria ez den eremuaren izena | |
| Planaren/Egitasmoaren izena | AMUE 11.UE eremuko HAPB |
| Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena | ELE batzordea |

**2. GALDETEGI LABURRA**

| GALDERA | BAI/EZ | AZALPENA |
|---|---|---|
| 1. Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...) | BAI | 468 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen du planak, beraz, biztanle kopuruan eragina izango du. |
| 2. Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...) | EZ | |
| 3.Planak/egitasmoak egoera soziolingistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du? | EZ | |

Galdetegiko lehenengo puntuan aurreikusi da eragina: biztanleen kopuruan eragina izango du planak. Hortaz, hiru aldagaietako batean eragina aurreikusi denez, hurrengo urratsa egin da dokumentuan.

### b. Bilakaera indizea

Plan horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkulua egin da.

Planaren bidez aurreikus daitekeen biztanle berrien kopurua 1.404koa da. Kalkulu hori egiteko kontuan hartu dira 468 etxebizitza eta aurreikusi da etxebizitza bakoitzera hiru pertsona etorriko direla bizitzera, ELEren jarraibideek adierazten duten moduan.

**Euskararen Proiekzio Indizea**

| | |
|---|---|
| Biztanleen kopurua gaur egun | 14.818 |
| Euskaldunak gaur egun kopurutan | 12.401 |
| Euskaldunak gaur egun % | 83,69 % |
| Biztanle/bisitari berrien kopurua | 1404 |

| BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN | | KOPURUTAN |
|---|---|---|
| Araba | 0,32 % | 4 |
| Bizkaia | 1,19 % | 17 |
| Gipuzkoa | 94,47 % | 1186 |
| Estatuko gainontzeko lurraldeak | 6,05 % | 85 |
| Atzerrikoak | 7,98 % | 112 |
| DENETARA | 100 % | |

| EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Estatuko gainontzeko lurra | Atzerrikoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskaldunak % | 28,54 % | 36,61 % | 57,37 % | 5,00 % | 1,00 % |
| Besteak % | 71,46 % | 63,39 % | 42,63 % | 95,00 % | 99,00 % |
| Euskaldunak | 1 | 6 | 680 | 4 | 1 |
| Besteak | 3 | 11 | 506 | 81 | 111 |

| BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA | | |
|---|---|---|
| Biztanle/Bisitari berrien kopurua | Etorriko diren erdaldunak | Etorriko diren euskaldunak |
| 1404 | 711 | 693 |

| EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Biztanle/bisitari berriak + ohikoak | Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak | Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak +berriak % | Euskaldunen % gaur egun | EPIx | EPI |
| 16.222 | 13.094 | 80,72 % | 83,69 % | -2,97 % | -2,97 |

| | |
|---|---|
| Eremua | Azpeitia |
| Planaren/Egitasmoaren | AMUE 11.UE eremuko HAPB |
| Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena | ELE batzordea |

| | | Oharrak |
|---|---|---|
| Guztira | 14.818 | |
| Euskaldunak - Guztira% | 83,69 | |
| Ama-hizkuntza euskara - Guztira% | 74,23 | |
| Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira% | 72,08 | |
| Euskara Zerbitzua | BAI | |
| ESEP | BAI | |
| Faktorea biztanle kopurua | 2,00 | |
| Faktorea Euskaldunak | 5,00 | |
| Faktorea Lehen hizkuntza | 5,00 | |
| Faktorea Etxeko hizkuntza | 5,00 | |
| Faktorea Euskararen inguruko egiturak | 0,00 | |
| Hauskortasun indizea | 8,67 | |
| Hiren eraginaren balioa | 1,00 | |
| Euskararen proiekzio indizea | -2,97 | |
| Bilakaera indizea | -1,97 | |

| | |
|---|---|
| TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA | HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA BAI |

Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:

Euskararen proiekzio-indizea: -2,97

Hauskortasun-indizea: 8,67 (hauskortasun ertaina)

Hauskortasun indizearen balioa: 1

Bilakaera-indizea: -1,97

Emaitza horiek aintzat hartuta, **AMUE 11.UE eremuko Plan Bereziaren gaineko hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar dela ondorioztatu da.**

# HIZKUNTZA INPAKTUAREN AZTERLANA EGITEA

## c. Eragin linguistikoaren intentsitatea

Bilakaera indizearekin eragin negatiboa izango dela ondorioztatu ondoren, hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar da. Horretarako, eraginaren intentsitatea kalkulatu behar da lehenik. Sei esparru hauetako eragina aztertu da:

- Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza
- Tokiko euskararen ezagutza
- Tokiko euskararen erabilera
- Hizkuntza paisaia
- Zerbitzuen, jardueren edo egitasmoen komunikazioa
- Euskarazko zerbitzuen eskaintza

Horietako bakoitzean kalkulatu da Amueko Plan Bereziak izango duen eragina, lau aldagairen arabera:

- Proiektua egin bitarteko eragina (leku jakin batean edo orokorrean)
- Proiektua egin osteko eragina (leku jakin batean edo orokorrean)
- Noizbehinkako eragina
- Etengabeko eragina

Intentsitatearen kalkulutik ondorioztatu da eragin moderatua izango duela proiektuak, aztertutako sei esparruetan inpaktu ertaina aurreikusi delako.

| Aldagaia | Balorazioa | Gako nagusiak |
|---|---|---|
| Komunitatearen kultur eta gizarte bizitza | Eragin positiboa | Orain arte bizitzarik izan ez duen eremuari bizitza emango zaio, eremua hobetu egingo da eta erdialdearekin lotuko da, herriari arnasa emango dio eta komunitate bizitza indartuko du. |

| | | |
|---|---|---|
| Euskararen ezagutza | baxua | Euskararen erabileran eragina izan dezake, biztanle berriak etorriko direlako, baina izatekotan baxua izango da. Orain arteko joerak ikusita, ez da aurreikusten aldaketa handirik ekarriko duenik. 2018an egin zen etxebizitza publiko eta pribatuen inguruko planaren ELE azterketan eragina nahiko positiboa izango zela ondorioztatu zen. |
| Euskararen erabilera | baxua | Euskararen erabileran ezagutzan baino eragin handiagoa izan dezake, biztanle berriak etorriko direlako, baina izatekotan baxua izango da. Ez da aurreikusten aldaketa handirik ekarriko duenik, bertako hiztun komunitatea trinkoa da eta orain arteko joerei erreparatuz gero, ez da aurreikusten aldaketa handirik ekarriko duenik. |
| Hizkuntza paisaia | ertaina | Obra garaian eragina izan dezake eta ondoren ere bai, zerbitzu berriak sortuko direlako. |
| Zerbitzuen/jardueren/egitasmoen komunikazioa | ertaina | Hirugarren sektoreko zerbitzu berriak sortuko |

| | | |
|---|---|---|
| | | dira eta egingo dituzten komunikazioen hizkuntza gaztelania izan daiteke. |
| Euskarazko zerbitzuen eskaintza | ertaina | Hirugarren sektoreko zerbitzu berriak sortuko dira eta zerbitzu hizkuntza gaztelania izan daiteke zenbait kasutan. |

## d. Funtsezko alderdiak

Atal honen helburua da aztertzea proiektuan jaso diren hizkuntzarekin lotutako alderdiak. Horretarako, alderdi hauek hartu dira kontuan:

- Etxebizitzak
- Espazio publiko irekiak
- Jarduera ekonomikoa
- Jarduera soziokulturala
- Hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak

Ondorengo taulan bildu dira funtsezko alderdien azterketaren gako nagusiak.

| Aldagaia | Balorazioa |
|---|---|
| Etxebizitza | Etxebizitzen % 20 tasatua eta beste %20 babes ofizialekoa izango da. Horietan izena emateko bi urtez erroldatuta egotea eskatuko da. Etxebizitzetatik gertu zerbitzuak eta ekipamenduak aise iristeko moduan egongo dira eta bizilagunak harremanetan jartzeko espazio publikoak aurreikusten dira.<br>Etxebizitza tipologiari dagokionez, 1go aukeran proposatzen direnek komunitate bizitza gehiago indar dezakete, etxebizitza |

| | |
|---|---|
| | eraikinen erdian plaza irekiak proposatzen baitira. |
| Espazio publiko irekiak | Espazio publikoak aurreikusten dira, 1go aukeran etxebizitzen aurrean plaza dago eta besteetan ere proposatzen dira inguruetan. Berdegune zabalak, eta oinezkoentzako sareak aurreikusten dira aukera guztietan, baita bidegorria ere, herrigunearekin konexioa bermatuz. |
| Ekipamenduak | Ekipamenduak aurreikusten dira, erabilera tertziariorako. Baina ez dago zehaztuta zein zerbitzu eskaintzeko izango den, publikoa edo pribatua izango den. Ekipamenduetan zein zerbitzu eskainiko den. |
| Hizkuntzari lotutako funtsezko alderdiak | Ez da zehaztu zein hizkuntza irizpide ezarriko diren obrak egiteko garaian: hizkuntza paisaia, komunikazioa, hizkuntzaren erabilera… Egoera soziolinguistikoan ahalik eta gutxien eragiteari begira, garrantzitsua da hasieratik abian jartzea hizkuntza irizpideak.<br>Obra ondorenerako ere, biztanle berriak bizitzen jartzen direnerako, zehaztu behar dira hizkuntza irizpideak, hizkuntza inpaktua arintzeari begira. Oraindik ezartzeko daude.<br>Neurriak arintzeari dagokionez, gogoan izatekoa da udalak badituela hainbat egitasmo<br>martxan (helduen euskalduntzea, etorri berrien harrera…), eta garrantzitsua izango |

| | |
|---|---|
| | dela lan berezia egitea biztanle berriekin. |

## 5. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK

Azpeitiko Amue eremuko plan bereziaren hizkuntza inpaktua aztertu da lan honetan, eta, azken kapituluan, horren giltzarri nagusiak eta neurriak hartzeko proposamenak bildu dira. Azterlanean aurreikusi da planak eragin arina izango lukeela udalerrian; biztanle berriak iristeak ekarriko luke kalte hori, haien zati bat ez bailitzateke euskalduna izango, baina eragina baxua litzatekeela aurreikusi da. Inpaktuaren intentsitatea oro har arina dela aurreikusi arren, hirugarren sektoreko erabilerarako ekipamenduen eraginez, hizkuntza paisaian, komunikazioetan eta zerbitzuen euskarazko eskaintzan eragin ertaina aurreikusten da.

Dena dela, Plan berezia udalak sustatua denez gero, udalak berak jadanik hartuak ditu hizkuntzaren ikuspegitik mesedegarri izan daitezkeen erabakiak; oinezko sareak aurreikustea eta etxebizitzetatik gertu espazio publiko zabalak zein berdeguneak aurreikustea, komunitate bizitza indartzen lagunduko dutenak. Eta, azkenik, babes ofizialeko zein etxebizitza tasatuen kasuan herritarrak lehenesteko neurriak hartzea, herrian erroldatuta egotea eskatuz. Proposatzen diren aukeren artean 1go aukera da komunitate bizitzari begira egokiena dena, U formako etxadi trinkoek aukera ematen dute plaza irekia ezartzeko etxebizitzen aurrean eta horrek komunitatea gehiago trinkotzen laguntzen du, bizilagunen arteko harremanak sustatuz. Horrez gain, etxebizitzen azpian lokalak aurreikusten dira eta hori ere positiboa da komunitate bizitzari begira.

Oraindik zehaztu gabe dago ekipamenduetan zein zerbitzu eskainiko den, dena den, aukeren artean aipatzen da merkataritzako establezimendua. Hori horrela, zehaztasun gehiago dagoenean, garrantzitsua izango da eragin linguistikoa neurtzea eta neurri zehatzak ezartzea. Hori dela eta, garrantzitsua izango da ekipamenduen erabilera zehazten denean neurri zehatzak ezartzea eta jarraipena egitea.

### Planifikazio garaian:

1. **Etxebizitzak:**

Aurreikusten da 468 eraikitzea. %20 babes ofizialekoak izango dira, %20 tasatuak eta beste %60 libreak. Hori horrela, %40ari errolda eskatu zaio eta horrek eragina jaistea ekarriko du. Baina beste %60 libreak izanda, aukera dago biztanle berriak etortzeko eta horietatik %49 erdaldunak izateko.

Hori horrela, garrantzitsua litzateke inguruko herriak eta Urola Kosta edo Urola Erdia eskualdekoak hartzea lehenik kontuan, arnasguneak baitira horiek ere. Aintzat hartu behar da Urola Kosta eskualdea euskalduna dela, arnasgune ugarikoa, eta garrantzitsua dela herritarrak eskualdean errotzea. Horri dagokionez,

irizpideetan txertatzeaz harago, garrantzitsua da herrian eta eskualdean proiektuaren berri ematea, bertako euskaldunak erakartzeko helburuz.

2. **Etxebizitza tipologia:**

Etxebizitza tipologiari dagokionez, 1go aukerako etxadi irekiak hobesten dira hizkuntzaren ikuspegitik, izan ere, komunitate bizitzarentzat onuragarriagoa dela baloratzen da. Eta horrenbestez, hizkuntzaren erabilera areagotzen da.

Beraz, komunitate bizitza indartzeari begira ELE batzordeak 1go aukera lehenestea eta hortik abiatutako plana diseinatzea hobesten du.

3. **Ekipamenduen erabilera:**

Hiru ekipamendu aurreikusi dira eremuan, eta etxe azpietan lokalak egongo dira hirugarren sektoreko erabilerarako eta hori positibotzat jotzen da komunitate bizitzarako. Aldi berean,zerbitzu berriek hizkuntza paisaian, zerbitzuen komunikazioetan eta zerbitzuen eskaintzan eragina izan dezake euskararen erabileran.

Hori horrela, etxeen behealdeko lokal horietako hainbaten zein ekipamenduen kudeaketa publikoa izateak euskararen erabileran eragin positiboa ekarriko du. Baita sortuko diren zerbitzuak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutakoak izateak nagusiki. Eta, azkenik, eskainiko diren zerbitzuen kudeaketa pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea garrantzitsua izango da.

4. **Espazio publikoen erabilera:**

Espazio publiko zabalak aurreikusi dira planean, baita oinezko sareak ere. Hori positiboa komunitate bizitzarako, bizilagunen arteko harremanak ugaritzen eta trinkontzen baititu.

Hori horrela, euskararen erabilerari kalterik ez egiteko, garrantzitsua izango da heldu eta txikiak elkarrekin egon daitezkeen espazioak aurreikustea. Adibidez, jolaslekuakeginezgero, ezizatea oso haurtxikientzatbakarrik, adinezberdinetakoherritarrentzakopentsatzea.

### Obra garaian

5. **Hizkuntza irizpideak:**

Obra lizentziak ematean hizkuntza irizpideak txertatzea eta horiei jarraipena egitea: seinaleetan zein udalarekin izango dituzten harremanetan.

### Etxebizitzak egin ondoren

**6. Harrera:**

Herritar berriak etortzean, garrantzitsua da haiei harrera egitea, herria ezagutu dezaten eta zerbitzuen berri izan dezaten. Harrera saio horretan, inportantea da hizkuntzaren ikuspegia nabarmentzea, arnasgune den herri batera iritsiko direlako.

Herritar berrientzako harrera antolatzea, UEMArekin elkarlanean, eta, besteakbeste, herriaren berri ematearekin batera, hizkuntzaren gaia berariaz lantzea.Horri dagokionez, interesgarria da proiektuaren berri ematen denean ere aipatzeahizkuntza —zabaldu diren informazio euskarrietan, adibidez, ez da gai horiaipatzen, nahiz eta Azpeitiri buruzko hainbat xehetasun ematen diren—.

**7. Herritar erdaldunak:**

Bizilagun berri horien artean izango dira erdaldunak ere, eta garrantzitsua da horiek sentsibilizatzea, eta ahalegina egitea euskara gertura daitezen.

Euskaraz ez dakiten bizilagunei bereziki eman informazioa euskara ikasteko aukerez eta udalak ematen dituen dirulaguntzei buruz. Erdaldunak ohartarazi Azpeitian euskaraz jakiteak dituen abantailez, norberarentzat ez ezik inguruarentzat egiten den ekarpenaz, eta euskara praktikatzeko dituzten aukerez.

**8. Ahalduntzea:**

Garrantzitsua da arnasguneetako herritarrak ahalduntzea, herriak jasan ditzakeen aldaketen aurrean kontziente izan daitezen euskaraz bizitzaren garrantziaz.

Ahalduntze saioak antolatzea herritarrekin, udalerriaren egoeraz hausnartzeko eta arnasguneek euskararen indarberritzean duten garrantziaz kontzientziatzeko.

## Ekipamenduak egin ondoren

**9. Hizkuntza irizpideak:**

Ekipamenduak aurreikusi dira eremuan eta lokalak zenbait etxebizitzen beheko eta lehenengo solairuetan, eta hizkuntza irizpideak bete beharko dira lokal horietako eta ekipamenduetako zerbitzuan.

Sortuko diren ekipamenduetan hizkuntza irizpideak txertatu eta bete: hizkuntza paisaia, zerbitzua euskaraz ematea, zerbitzuen komunikazioak euskaraz egitea, euskaraz aritzeko eskaintza aktiboa egitea...

**Para que así conste, se hace saber que el siguiente texto es una traducción en extracto del original, redactado en euskera (Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi).**

# Estudio de Impacto Lingüístico del Plan Especial de Amue

## INDICE


1. Preambulo........................................................................................................

2. Evaluación del impacto lingüístico ..........................................................
   a. Cuestionario breve.............................................................................
   b. Índice de evolución.................................................................................
   c. Intensidad del impacto lingüístico.......................................
   d. Aspectos fundamentales.........................................................................
3. Conclusiones y medidas correctoras ...............................................

## 1. Preambulo

El objetivo de este trabajo es evaluar el impacto lingüístico del Plan Especial del Área Urbanística Amue 11. Y proponer medidas correctoras para minimizar dicho impacto en el uso del euskera.

El área de Amue está situada en el centro del casco urbano de Azpeitia, junto a los ríos Urola e Ibaieder, junto al casco histórico. En él se incluyen el convento de las Franciscanas, parte del suelo de la empresa Corrugados Azpeitia, correspondiente a la fundición y almacenamiento de chatarra.

Azpeitia es uno de los pulmónes del euskera. La mayoría de los vecinos saben euskera, y la lengua de uso habitual del municipio es el euskera. El Plan Especial contempla la posibilidad de construir viviendas y edificios de uso terciario y equipamientos de uso comunitario. De este modo, el plan tendrá un impacto poblacional. Por ello, se considera necesario analizar este impacto con el fin de adoptar medidas preventivas. Ese es el objetivo de este trabajo. Analizar la incidencia del plan en el uso del euskera y proponer medidas correctoras en caso de afecciones.

## 2. EVALUACIÓN DEL IMPACTO LINGÜÍSTICO

En este apartado se recoge el camino recorrido para analizar la incidencia lingüística del Plan Especial del Área Urbanística Amue 11 de Azpeitia, los pasos y análisis realizados por la Ley 2/2016 y el Decreto 179/2019.

### ELABORACIÓN DEL DOCUMENTO DE ALCANCE

El Ayuntamiento de Azpeitia ha solicitado a la comisión ELE la elaboración de un documento de alcance para medir la incidencia del plan tanto en la población local como en la situación sociolingüística.

#### a. Cuestionario breve

La elaboración del documento de alcance es el primer paso que marca la ley, para lo cual hay que contestar un breve cuestionario sobre el proyecto:

**1. PLANAREN/EGITASMOAREN GAINEKO DATUAK**

| | |
|---|---|
| Eremua | Azpeitia |
| Udalerria ez den eremuaren izena | |
| Planaren/Egitasmoaren izena | AMUE 11.UE eremuko HAPB |
| Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena | ELE batzordea |

**2. GALDETEGI LABURRA**

| GALDERA | BAI/EZ | AZALPENA |
|---|---|---|
| 1. Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...) | BAI | 468 etxebizitza berri eraikitzea proposatzen du planak, beraz, biztanle kopuruan eragina izango du. |
| 2. Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...) | EZ | |
| 3.Planak/egitasmoak egoera soziolingistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du? | EZ | |

La incidencia está prevista en el primer punto del cuestionario y afecta al número de habitantes. Por tanto, dado que se ha previsto el impacto en una de las tres variables, se ha dado el siguiente paso en el documento.

#### b. Índice de evolución

Se ha realizado el cálculo de los índices necesarios para determinar la necesidad que tiene dicho plan de realizar un estudio de impacto lingüístico.

El número de nuevos habitantes previstos a través del Plan es de 1.404. Para este cálculo se han tenido en cuenta 468 viviendas y se prevé que cada una de ellas vaya a ser ocupada por tres personas, tal y como indican el procedimiento para realizar la evaluación del impacto lingüístico.

## Euskararen Proiekzio Indizea

| | |
|---|---|
| Biztanleen kopurua gaur egun | 14.818 |
| Euskaldunak gaur egun kopurutan | 12.401 |
| Euskaldunak gaur egun % | 83,69 % |
| Biztanle/bisitari berrien kopurua | 1.404 |

| BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN | | KOPURUTAN |
|---|---|---|
| Araba | 0,32 % | 4 |
| Bizkaia | 1,19 % | 17 |
| Gipuzkoa | 84,47 % | 1.186 |
| Estatuko gainontzeko lurraldeak | 6,05 % | 85 |
| Atzerrikoak | 7,98 % | 112 |
| DENETARA | 100 % | |

| EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | Estatuko gainontzeko lurra | Atzerrikoak |
|---|---|---|---|---|---|
| Euskaldunak % | 28,54 % | 36,61 % | 57,37 % | 5,00 % | 1,00 % |
| Besteak % | 71,46 % | 63,39 % | 42,63 % | 95,00 % | 99,00 % |
| Euskaldunak | 1 | 6 | 680 | 4 | 1 |
| Besteak | 3 | 11 | 506 | 81 | 111 |

**BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA**

| Biztanle/Bisitari berrien kopurua | Etorriko diren erdaldunak | Etorriko diren euskaldunak |
|---|---|---|
| 1.404 | 711 | 693 |

**EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA**

| Biztanle/bisitari berriak + ohikoak | Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak | Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak +berriak % | Euskaldunen % gaur egun | EPI% | EPI |
|---|---|---|---|---|---|
| 16.222 | 13.094 | 80,72 % | 83,69 % | -2,97 % | -2,97 |

| | |
|---|---|
| Eremua | Azpeitia |
| Planaren/Egitasmoaren | AMUE 11.UE eremuko HAPB |
| Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaz arduratuko den batzordearen izena | ELE batzordea |

| | | Oharrak |
|---|---|---|
| Guztira | 14.818 | |
| Euskaldunak - Guztira% | 83,69 | |
| Ama-hizkuntza euskara - Guztira% | 74,23 | |
| Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira% | 72,08 | |
| Euskara Zerbitzua | BAI | |
| ESEP | BAI | |
| Faktorea biztanle kopurua | 2,00 | |
| Faktorea Euskaldunak | 5,00 | |
| Faktorea Lehen hizkuntza | 5,00 | |
| Faktorea Etxeko hizkuntza | 5,00 | |
| Faktorea Euskararen inguruko egiturak | 0,00 | |
| Hauskortasun indizea | 8,67 | |
| Hiren eraginaren balioa | 1,00 | |
| Euskararen proiekzio indizea | -2,97 | |
| Bilakaera indizea | -1,97 | |

| | |
|---|---|
| TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA | HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA BAI |

En base a ello, los resultados de los índices han sido los siguientes:

Índice de proyección del euskera: -2,97

Índice de fragilidad: 8,67 (hauskortasun ertaina)

Valor índice de fragilidad: 1

Índice de evolución: -1,97

De estos resultados se concluye **la necesidad de realizar un estudio de impacto lingüístico sobre el Plan Especial de la AU 11, AMUE.**

# REALIZACIÓN DEL ESTUDIO DE IMPACTO LINGÜÍSTICO

## c. Intensidad del impacto lingüístico

Una vez llegados a la conclusión que la evolución va a tener un impacto negativo con el índice, se debe realizar un estudio de impacto lingüístico. Para ello, primero hay que calcular la intensidad del impacto. Se ha analizado el impacto en estos seis ámbitos:

- La vida cultural y social comunitaria.
- Conocimiento del euskera local.
- Paisaje lingüístico.
- Comunicación de servicios, actividades o proyectos.
- Oferta de servicios en euskera.

En cada una de ellas se ha calculado el impacto del Plan Especial de Amue en función de cuatro variables:

- Impacto durante la realización del proyecto (en un lugar concreto o en general)
- Impacto tras la realización del proyecto (en un lugar concreto o en general)
- Impacto ocasional.
- Impacto continuo.

Del cálculo de la intensidad se deduce que el proyecto tendrá un impacto moderado al preverse un impacto medio en los seis ámbitos analizados.

| Variable | Valoración | Claves principales |
|---|---|---|
| Vida cultural y social comunitaria | Impacto positivo | Se dará vida a una zona que hasta ahora no había tenido vida, se mejorará la zona y se conectará con el centro, dará aliento al pueblo y potenciará la vida comunitaria. |
| Conocimiento del euskera | bajo | Puede afectar al uso del euskera, porque vendrán nuevos habitantes, pero en todo caso será bajo. A la vista de las tendencias observadas hasta ahora, no es previsible que suponga grandes cambios. En el análisis ELE del plan de vivienda pública y privada realizado en 2018 se concluyó que el impacto sería más bien positivo. |
| Utilización del euskera | bajo | Puede influir más en el uso del euskera que en el conocimiento, porque vendrán nuevos habitantes, pero en todo caso será bajo. No es |

| | | |
|---|---|---|
| | | previsible que suponga grandes cambios, la comunidad de hablantes autóctonos es compacta y si atendemos a las tendencias hasta ahora, no es previsible que traiga consigo grandes cambios. |
| Paisaje lingüístico | medio | Puede afectar al periodo de obras y también después, porque se van a crear nuevos servicios. |
| Comunicación de servicios/actividades/proyectos | medio | Se crearán nuevos servicios terciarios y la lengua de las comunicaciones que se realizarán podrá ser el castellano. |
| Oferta de servicios en euskera | medio | Se crearán nuevos servicios terciarios y la lengua de servicio puede ser en algunos casos el castellano. |

### d. Aspectos fundamentales

El objetivo de este apartado es analizar los aspectos lingüísticos recogidos en el proyecto. Para ello se han tenido en cuenta los siguientes aspectos:

- Viviendas

- Espacios públicos abiertos
- Actividad económica
- Actividad sociocultural
- Aspectos fundamentales relacionados con la lengua

En la siguiente tabla se recogen las principales claves del análisis de los aspectos más importates.

| Variable | Valoración |
|---|---|
| Vivienda | El 20% de las viviendas serán tasadas y el otro 20% de protección oficial. Para inscribirse en ellas se exigirá estar empadronado dos años. Cerca de las viviendas los servicios y equipamientos estarán fácilmente accesibles y se prevén espacios públicos de contacto para los vecinos.<br><br>En cuanto a la tipología de vivienda, las propuestas en la opción 1 pueden potenciar más la vida comunitaria, ya que se proponen plazas abiertas en el centro de los edificios de viviendas. |
| Espacios públicos abiertos | Se contemplan espacios públicos, en la opción 1 frente a las viviendas se encuentra la Plaza y en las otras también se proponen en los alrededores. Se contemplan amplias zonas verdes, y redes peatonales en todas las posibilidades, así como un bidegorri, garantizando la conexión con el núcleo urbano. |

| | |
|---|---|
| Equipamientos | Se prevén equipamientos para uso terciario. Pero no está definido para ofrecer qué servicios, si serán públicos o privados, ni qué servicios se ofrecerán en esos equipamientos. |
| Aspectos fundamentales relacionados con la lengua | No se han definido los criterios lingüísticos que se establecerán a la hora de realizar las obras: paisaje lingüístico, comunicación, uso de la lengua… De cara a minimizar la incidencia en la situación sociolingüística, es importante poner en marcha los criterios lingüísticos desde un principio.<br>También, para después de finalizar la obra, cuando los nuevos habitantes se instalen, hay que definir criterios lingüísticos para mitigar el impacto lingüístico. Aún quedan por definir y por implantar dichos criterios lingüísticos. En cuanto se refiere a minizar el impacto se debe recordar que el ayuntamiento dispone de varios programas para ello y será primordial realizar un trabajo con los nuevos vecinos. |

# 1. CONCLUSIONES Y MEDIDAS CORRECTORAS

En este trabajo se analiza el impacto lingüístico del plan especial del ámbito urbanístico de Amue en Azpeitia y, en el último capítulo, se recogen sus principales claves y propuestas para la adopción de medidas. En el estudio se ha previsto que el plan tendría

un impacto leve en el municipio, un perjuicio que se derivaría de la llegada de nuevos habitantes, parte de los cuales no sería euskaldun, aunque se ha previsto que el impacto sería bajo. Aunque se prevé que la intensidad del impacto sea en general ligera, debido a los equipamientos para uso terciario, se prevé un impacto medio sobre el paisaje lingüístico, las comunicaciones y la oferta de servicios en euskera.

No obstante, dado que el Plan Especial es promovido por el Ayuntamiento, éste ya ha tomado decisiones que pueden resultar beneficiosas desde el punto de vista lingüístico; la previsión de redes peatonales y la previsión de espacios públicos amplios y zonas verdes cerca de las viviendas, que contribuyan a reforzar la vida comunitaria. Y, por último, adoptar medidas de priorización ciudadana tanto en el caso de viviendas de protección oficial como tasadas, exigiendo el empadronamiento en la localidad. Entre las opciones que se proponen, la 1 es la más adecuada para la vida comunitaria, las manzanas compactas en forma de U permiten establecer una plaza abierta frente a las viviendas, lo que contribuye a una mayor compactación de la comunidad, fomentando las relaciones vecinales. Además, se prevén locales bajo las viviendas, lo que también es positivo de cara a la vida comunitaria.

Aún no está definido el servicio que se va a ofrecer en los equipamientos, si bien entre las opciones se menciona el establecimiento comercial. Así, cuando haya más concreción, será importante medir el impacto lingüístico y establecer medidas concretas. Por ello, será importante establecer medidas concretas y realizar un seguimiento cuando se determine el uso de los equipamientos.

En periodo de planificación:

1. **Viviendas:**

Se prevé la construcción de 468 viviendas, el 20% de ellas de protección oficial, el 20% tasadas y el 60% libres. Así, al 40% se le ha pedido estar empadronado, lo que redundará en una disminución del impacto lingüístico. Pero siendo el otro 60% libres, existe la posibilidad de que vengan nuevos habitantes y el 49% de ellos sean castellanoparlantes.

Siendo eso así, sería importante tener en cuenta en primer lugar a los pueblos de la zona y a los de la comarca de Urola Kosta o Urola Erdia, que también son pulmones del euskera. Hay que tener en cuenta que la comarca de Urola Kosta es euskaldun, con muchos respiraderos y es importante que la ciudadanía arraigue en la comarca. A este respecto, más allá de su incorporación a los criterios, es importante dar a conocer el proyecto en el pueblo y en la comarca, con el objetivo de atraer a sus vascoparlantes

2. **Tipología de vivienda:**

En cuanto a la tipología de vivienda, se priorizan las manzanas abiertas de opción 1 desde el punto de vista lingüístico, ya que se valora como más beneficiosa para la vida comunitaria. Y, por tanto, aumenta el uso del lenguaje.

Por lo tanto, la Comisión ELE prioriza la opción 1 para reforzar la vida comunitaria y diseñar un plan a partir de ella.

3. **Uso de equipamientos:**

Se prevén tres equipamientos en la zona, con locales en los bajos de las casas para uso terciario, lo que se considera positivo para la vida comunitaria. Al mismo tiempo, los nuevos servicios pueden afectar al paisaje lingüístico, a las comunicaciones de los servicios y a la oferta de los mismos.

Así, la gestión pública de algunos de estos locales y equipamientos en la parte baja de las casas repercutirá positivamente en el uso del euskera. También que los servicios que se generen sean principalmente educativos, sanitarios, sociales, deportivos o culturales. Y, por último, será importante prever convenios con el ayuntamiento en caso de gestión privada de los servicios que se van a ofrecer.

4. Uso de los espacios públicos:

El plan contempla amplios espacios públicos, así como redes peatonales. Esto es positivo para la vida comunitaria, que multiplica y compacta las relaciones entre vecinos.

Así, para no perjudicar el uso del euskera, será importante prever espacios donde adultos

y pequeños puedan estar juntos. Por ejemplo, que al construir zonas de juego no sean sólo para niños muy pequeños, que se prevean para ciudadanos de diferentes edades.

Periodo de obras

**5. Criterios lingüísticos:**

Incorporación y seguimiento de criterios lingüísticos en la concesión de licencias de obras: en la señalización y en la relación con el Ayuntamiento.

Tras la construcción de las viviendas

**6. Acogida:**

En la llegada de nuevos ciudadanos es importante acogerlos para que conozcan el pueblo y conozcan los servicios. En esta acogida es importante destacar la visión de la lengua, ya que llegarán a un pueblo que es un pulmón de la lengua.

Organizar la acogida a nuevos ciudadanos, en colaboración con UEMA y, entre otras cosas, informar sobre el municipio, trabajar específicamente el tema de la lengua. A este respecto, es interesante señalar que, incluso cuando se informa del proyecto, en los soportes informativos que se han difundido, por ejemplo, no se hace referencia a este tema, aunque se dan algunos detalles sobre Azpeitia—.

**7. Ciudadanos castellanoparlantes:**

Entre estos nuevos vecinos también estarán los castellanoparlantes, y es importante sensibilizarlos, y hacer un esfuerzo para se acerquen al euskera.

Informar especialmente a los vecinos que no sepan euskera sobre las posibilidades de aprender euskera y sobre las subvenciones que concede el ayuntamiento. Los castellanohablantes advierten de las ventajas de saber euskera en Azpeitia, de la aportación que se hace no sólo para uno mismo sino para el entorno, y de las posibilidades que tienen de practicar el euskera.

**8. Empoderamiento:**

Es importante empoderar a los ciudadanos de los pulmones del euskera para que sean conscientes de la importancia de la vida en euskera ante los cambios que pueda sufrir el pueblo.

Organizar sesiones de empoderamiento con la ciudadanía para reflexionar sobre la situación del municipio y concienciar sobre la importancia de los pulmones del euskera en la revitalización del euskera.

Una vez realizados los equipamientos

9. **Criterios lingüísticos**:

Se han previsto equipamientos en la zona y locales en las plantas baja y primera de algunas viviendas, debiendo cumplirse los criterios lingüísticos de estos locales de sus equipamientos de servicios.

Integración y cumplimiento de criterios lingüísticos en los equipamientos que se van a crear: paisaje lingüístico, prestación del servicio en euskera, comunicaciones de servicios en euskera, oferta activa para el uso del euskera…

Azpeitiko Udala

**MARIA OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO,** Azpeitiko Udaleko idazkaria.

**ZIURTATZEN DUT:** Hirigintza Planen eta Proiektu alorrean Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko Batzordeak (ELE BATZORDEAKk) **2022ko apirilaren 26an** egindako bileran honako hau dioen erabakia hartu zuela:

**3.- HAPOREN AMUE 11 HE HIRIGINTZA EREMURAKO PLAN BEREZIA ONARTZEA.**

**Planaren helburua:**

Udalbatzak, 2013ko irailaren 17an egindako bilkuran, behin betiko onartu zuen Azpeitiko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (2013ko irailaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 183. zk., 2013ko urriaren 11ko 195. zk. eta 2013ko azaroaren 6ko 211. zk.)

Plan Orokorrak eremurako antolamendua Plan Berezi baten bidez egingo zela jaso zuen, eta hori da, hain zuzen, HAPOren AMUE 11 HE Hirigintza eremurako Plan Bereziaren helburua (aplikatu beharreko lurralde-antolamenduan eta plangintza orokorrean aurreikusitako eredua benetan gauzatzea, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2003 Legean jasotako ingurumen-ebaluazioaren prozedura integratuz).

Alkatetzak 2021eko abenduaren 10ean emandako Ebazpenaren bidez Plan Berezia idazteko laguntza eta aholkularitza zerbitzua KREAN, S.COOP enpresari esleitzea erabaki zuen. Talde teknikoa honako hauek osatzen dute -Larraitz Sasiain Sesma (arkitektua), Patxi de Asas Yagüe (abokatua) eta Vicente Lopez Encina (Ingurumena eta inguru fisikoan aditua).

Talde teknikoak Plan Bereziaren oinarrizko dokumentua osatu ondoren, une honetan espedientea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzan dago ohiko Ingurumen-ebaluazio estrategiko prozeduran, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismen dokumentua zehazteko.

Plan Bereziak herriko erdigunean dagoen eremu bat antolatuko du. Orain urte batzuk arte eremu horretan industria jarduera bat ematen zen, baina Azpeitiko Hirigintza Antolamenduaren Plan Orokorrak etorkizunerako bizitegi/merkataritza eremu bat aurreikusten du (Oinarrizko planak aukera ezberdinak jaso ditu).

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

**Planaren hizkuntza-inpaktua.**

Euskadiko Toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa den azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 6. kapituluak jasotzen du udalen egoera soziolinguistikoan era negatiboan eragin dezaketen udal-eskumeneko planak onartzeko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen inpaktua ebaluatuko dutela udal zerbitzu teknikoek.

Planak tokiko biztanle-kopuruan zein egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko udal-teknikariek honako **irismen-dokumentua** egin dute, horretarako adierazle hauek erabiliz: a) Aldaketak, udalerriko biztanle kopurua, b) Aldaketak, udalerria bisitatzen dutenen kopuruan, eta c) Bestelako eraginak, udalerriaren egoera soziolinguistikoan.

## AMUE 11.UE EREMUKO PLAN BEREZIAREN IRISMEN-DOKUMENTUA

**Planaren/proiektuaren izena:** AMUE 11.UE eremuko HAPB

**Eragin eremua:** Azpeitiko Amue eremua

**Teknikarien izenak**: Patxi Saez eta Goizane Arana

**Batzordearen izena:** ELE batzordea

**AMUE 11.UE eremuko HAPB izeneko proiektuaren helburuak hauek dira:**

- Hiri-eremuan integratzea, gaur egun Corrugados Azpeitia enpresak okupatzen duen industria-lurzoruaren herena inguru, hain zuzen ere, Hirigune Historikotik hurbilen dagoena. Batez ere bizitegietarako izango da.
- Batetik, egungo industria-sarearen eta lurzoruaren muturreko baldintzak aldatzea, bai eta komentu-lurzorua eta Urola ibaiaren aurreko lerrokaduran lehendik zeuden bizitegi-eraikinak eraldatzea ere, Ibaiederren ibilgua eta haren eskuinaldea Urolako bokaleraino berreskuratzeko. Bestetik, hiri-eremu hori berrantolatzea, batez ere bizitegitarako. Horiez gain, hirugarren sektorerako espazio libreak, ekipamenduak eta garapenak kokatuko dira.
- Guztira 468 etxebizitza eta hirugarren sektoreko erabileretarako 15.040 m (t) antolatzea, baita komunitatearen ekipamendurako zuzkiduretarako lurzoruak ere.
- Komentuko eraikuntza hirugarren sektoreko edo ekipamenduko erabileretarako finkatzea.
- Udalaren bide-sarearen esparruan integratzea, bai motordun nahiz motorrik gabeko mugikortasunari dagokiona, bai eta trenbideari dagokiona ere; horrela, industria-ezarpenaren ondorioz bere garaian hipotekatutako trenbide-trazadura berreskuratuko da. Horrekin batera, eremua Alde Zaharrarekin eta, bereziki, Plaza Nagusiarekin, Garmendialde eta Enparan aldeko alboko bizitegiekin eta Landetarekin (hegoaldean) integratzeko baldintzak hobetzen lagunduko da.

Azpeitiko Udala

- Proposatutako garapenarekin bateraezinak diren egungo eraikinak eraistea, aurretik zeuden industria-jarduerak Trukutxoko eremura eraman ondoren.

Planak tokiko biztanle-kopuruan zein egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egitea eskatu dio Azpeitiko Udalak ELE batzordeari. Horregatik, plan horrek hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko beharrik ote duen jakiteko beharrezkoak diren indizeen kalkulua egin da.
Planaren bidez aurreikus daitekeen biztanle berrien kopurua 1.404koa da. Kalkulu hori egiteko kontuan hartu dira 468 etxebizitza eta aurreikusi da etxebizitza bakoitzera hiru pertsona etorriko direla bizitzera, ELEren jarraibideek adierazten duten moduan.

Hori oinarri hartuta, hauek izan dira indizeen emaitzak:
Euskararen proiekzio-indizea: -2,97
Hauskortasun-indizea: 8,67 (hauskortasun ertaina)
Hauskortasun indizearen balioa: 1
Bilakaera-indizea: -1,97

Emaitza horiek aintzat hartuta, AMUE 11.UE eremuko Plan Bereziaren gaineko hizkuntza inpaktuaren azterlana egin behar da.
Irismen-dokumentu hau planaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

θ

Batzordekide guztiek aho batez emandako txostena onartu dute, eta AMUE 11.UE eremuko Plan Bereziaren gaineko hizkuntza inpaktuaren azterlana osatzeko planaren talde teknikoarekin bilerak egingo dira.

Dokumentu hori osatu ondoren Batzordera ekarriko da aztertzeko eta, hala balegokio, onartzeko eta planaren funtsezko izapideekin batera tramitatzeko. Aldi berean Eusko Jaurlaritzara bidaliko da dagokion txostena egiteko.

Eta horrela jasoa gera dadin eta, alkate udalburuaren on iritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita biko uztailaren batean.

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

O.E.
ALKATEA,

Azpeitiko Udala
IDAZKARITZA

2023 PLAN 0002

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Política Lingüística
Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas

AZPEITIKO UDALA
2023 API. 17
SARRERA ENTRADA Zkia 2863 N.º

AZPEITIKO UDALAK

## AURKEZTUTAKO HAPOREN AMUE 11 HE HIRIGINTZA EREMURAKO PLAN BEREZIAREN HIZKUNTZA-INPAKTUAREN AZTERLANARI ERANTZUNA

2023ko martxoaren 17an Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) jaso zuen Azpeitiko HAPOren AMUE 11 HE hirigintza eremuko plan bereziaren hizkuntza-inpaktuaren azterlana bertako Udalaren eskutik (028-1099401 zenbakidun espedientea). Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 55.3.artikuluak xedatutakoaren ondorioz, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak jasotako hizkuntza-inpaktuaren azterlanei buruzko txostena egingo du hogeita hamar egun baliodunеko epean.

### Aurrekariak eta legezko oinarriak

Apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, bere 7. artikuluko 7. atalean ondorengo betebeharra ezartzen die toki-erakundeei: *"Udaletako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira."*

Azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuan, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoan, Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko nondik norakoak garatu ziren.

### Hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren helburu eta printzipioak

Goian aipatutako 179/2019 Dekretuaren 49. artikuluari jarraituz, *"Udalen egoera soziolinguistikoan era negatiboan eragin dezaketen udal-eskumeneko planak onartzeko prozeduran eta proiektuei baimenak edo gaikuntzak emateko prozeduran, euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen inpaktua ebaluatuko da, dekretu honen 50. artikuluan xedatutakoaren arabera. Gero, ebaluazio horren ondoriozko neurriak proposatuko dira, kapitulu honetan jasotako baldintzen arabera, egoki irizten bazaie."*

Artikulu berak honela laburtzen ditu hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioaren helburu nagusiak:

a) *Udalen egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen planak eta proiektuak egiteko eta onartzeko prozeduretan, eta haiei baimena edo*

Este documento es una representación del original disponible a través del localizador y la sede electrónica indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako lokalizatzailearen eta egoitza elektronikoaren bidez eskuragarri dagoena.

*gaikuntza emateko prozeduretan, hizkuntza-alderdiak eta euskararen erabileraren normalizazioa gehitzea.*

b) *Euskararen erabilera normalizatzeko onuragarrienak diren aukerak aztertzea eta kontuan hartzea.*

c) *Neurriak diseinatzea, euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko.*

## Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko erabilitako metodologia

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko, toki-erakunde guztientzat baliagarria izan daitekeen metodologia landu du HPSk UEMArekin batera, eta berau egin ahal izateko tresna informatikoak jarri ditu toki-administrazio guztien eskura: plan edo proiektu bati hizkuntza-inpaktuaren azterlana egin edo ez erabakiko duen irismen-dokumentua egiteko aplikazioa, eta azterlana egin behar dela behin erabakita, hizkuntza-inpaktuaren azterlana egiteko aplikazioa bera.

HPSk eta UEMAk landu eta proposatutako metodologiari jarraitu dio Azpeitiko Udalak.

## Hizkuntza-inpaktuaren azterlanak jaso beharreko alderdiak

179/2019 Dekretuaren 54. artikuluarekin bat etorriz, honakoak dira hizkuntza-inpaktuaren azterlanak, gutxienez, jaso beharreko alderdiak:

a) *Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko beharko den denboraren gaineko aurreikuspenak.*

b) *Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua.*

c) *Funtsezko alderdiei buruzko azterketa.*

d) *Konpentsazio-neurriak.*

e) *Neurri zuzentzaileak.*

Aipatutako alderdi horiek guztiak jaso ditu Azpeitiko Udalaren azterlanak. AMUE 11.UE Eremuko Plan Bereziaren helburu nagusia da hiri-eremuan integratzea gaur egun Corrugados Azpeitia enpresak hartzen duen industria-lurzoruaren herena inguru, hirigune historikotik hurbilen dagoena, batez ere

bizitegietarako. Guztira 468 etxebizitza eta hirugarren sektoreko erabileretarako 15.040 metro egokitzea aurreikusi dira, eta baita komunitatearen ekipamendurako zuzkiduretarako lurzoruak ere.

Planak tokiko biztanle-kopuruan zein egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen-dokumentua egin da. Proiektuaren datuak eta egoera soziolinguistikoarenak uztartuta, euskararen proiekzio-indizea kalkulatu da. Hauxe izan da emaitza: -2,97. Hori Azpeitiako hauskortasun-indizearekin (1) lotuta, bilakaera-indizea kalkulatu da: -1,97. Eragin negatiboa, beraz, eta eragin linguistikoaren ebaluazioa egin behar da.

## Proposatutako neurri zuzentzaileen egokitasuna

Udalak aurkeztutako hizkuntza-inpaktuaren azterlanean aurreikusi da planak eragin arina izango lukeela udalerrian, eta kalte hori biztanle berriak iristeak ekarriko luke. Inpaktuaren intentsitatea oro har arina izanda ere, hirugarren sektoreko erabilerarako ekipamenduen eraginez, eragin ertaina aurreikusi da ondorengoetan: hizkuntza paisaian, komunikazioetan eta zerbitzuen euskarazko eskaintzan. Hori dela eta, hainbat neurri zuzentzaile proposatu du azterlanak.

**Hasteko, planifikazio garaian** garrantzitsua izango da ekipamenduen erabilera zehazten denean neurri zehatzak ezartzea eta jarraipena egitea.

Etxebizitzak, eta horien tipologia: herrian eta eskualdean proiektuaren berri ematea, bertako euskaldunak erakartzeko helburuarekin. Horrez gain, etxadi irekiak hobesten dira hizkuntzaren ikuspegitik.

Ekipamenduen eta espazio publikoen erabilera: Zerbitzu berriak erabiltzea komunitate bizitzarako, euskararen erabileran eragin positiboa eduki dezaten. Halaber, espazio publiko zabalak aurreikusi dira planean, komunitate bizitzarako eta harremanak trinkotzeko balio izango dutenak.

**Obra garaian**, hizkuntza irizpideei lotuta, obra lizentziak ematen hizkuntza irizpideak txertatzea eta horiei jarraipena egitea.

**Etxebizitzak egin ondoren**, harrera antolatzea herritar berrientzat, hizkuntzaren gaia berariaz lantzen. Horrez gain, herritar erdaldunak sentsibilizatzea, eta arnasguneetako herritarrak ahalduntzea, udalerriaren egoeraz hausnartzeko eta euskararen indarberritze-prozesuan duten garantziaz kontzientziatzeko.

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
*Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Viceconsejería de Política Lingüística
*Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas*

**Azkenik,** **ekipamenduak egin ondoren**, sortuko diren ekipamenduetan hizkuntza irizpideak txertatu eta bete: hizkuntza-paisaia, zerbitzua euskaraz eman, komunikazioak euskaraz...

Oso positibotzat jotzen du HPSk neurri zuzentzaile horiek proiektuan aurreikusi izana. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak benetan eskertzen du Azpeitiko Udala euskararen erabilera normalizatzeko eta aztertutako proiektuak euskararen egoeran eragin lezaken balizko eragin negatiboa leundu edo saihesteko egiten ari den ahalegina.

Hori guztia kontuan hartuta, **HPSk begi onez ikusten du Azpeitiko Udalak egin duen hizkuntza-inpaktuaren azterlana**.

Adeitasunez, agurtzen zaitut.

**Joseba Lozano Santos**
**Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria**